

EBK USURBIL – Talde Sustatzailearen 1. bilera

(2022/05/17 – 18:00 – Udarregiko erdiko aretoa)

Parte hartzaileak

Goienerr: Alazne (teknikaria, Aginaga), Iban (teknikaria, Donostia)

Udala: Ibon (ingurumen teknikaria), Joxe Mari (zinegotzia, Txokoalde)

Herritarrak:

Gizon: 13

Emakume: 5

Auzo eta guneak:

Ugartondo

Kalexar

Zubieta

Santuene

Kaxkoa

Aginaga

Plaken inguruko informazio bila:

3 herritar

Elkartek: Zubietako Herri Batzarra, Anaerreka Natur taldea

1. Aurkezpen erronda [18:00 – 18:15]

Zeintzuk garen, matrizea osatu, gure ibilbidea ezagutzen joan.

Pertsonako, 30 segundo aurkezpena egiteko eta elkar ezagutzeko.

2. Espektatibak [18:15-18:30]

Zer espero dugu gaurko bileraren inguruan?

Bakoitzak post-it batean bere espektatibak idatzi eta horman itsatsi

Zubieta → nola uztartu EBK

Berriztagarriek banakako zein kolektiboki eman ditzakeen **onurak ezagutzea**

Energiaren arazoa ulertzea, proposamenak landu, guk proposatutako bideetan **parte hartu** Kokatu, pixkanaka lantzen hasi, larrialdi egoeran kokatu eta **trantsizio** mugimendu baten **ardatza sortu** (energiaren inguruan)

Nola **antolatuko** gara? Nola funtzionatuko du? **Informazioa partekatzea** beharrezkoa da **Talde bezala indartzen** joan

Sortzeko **pausoak ezagutu** (eskema)

Proiektua nola hasi, zer egin behar duen bakoitzak, zenbat bilera, **herri osoari zerbitzua** emateko gai?, zer suposatzen du bazkide izateak?

Zertarako gogoia dugun ikusi eta ea martxa hartzen duen. **Energia krisiari aurre** egiteko neurriei ekin

Informazioa bildu, aukerak ezagutu, **komunitateaz hitz egin** eta jakin **zer lortu** dezakegun Taldeak osatu eta ekin

Energia garbiago batekin, gutxiago kontaminatzen laguntzea, **enpresa handien** abusuen **menpe ez** egoteko → subiranotasuna

Zer da EBK? Nola parte hartu? **Nola murriztu kontsumoa** eta multinazionaletikiko menpekotasuna?

Zer espero da nigandik?

Hasiera eman **proiektu ezinbesteko** bati (antolaketa), gero **publikotik, ekimen partikularrei** erantzun

Informazioa jaso eta **ahaldundu, formazioa.**

Energia **termikoa?**

Egoeraren alternatibak ezagutu.

Energiaren inguruko **lantalde iraunkor bat** eratzeko ekimena abiatzea, **ikuspegi zabal** batekin. **Erabakiak, herritarrek** hartzea, teknikotasun beharrik gabe.

Komunitatea, **jasangarritasuna** eta energiaren inguruan **kontzientziatzeko dinamika** bat abiatzen laguntzea. **Herri garbiago bat** eraikitzen lagundu. Informatu eta **esperientziak partekatu.**



3. Sarrera [18:30-18:45]

PPT-a. Kontzeptuak birgogoratu

- Energia komunitateen hiru aspektu nagusi: zer zerbitzu emango diren, nola egingo den eta noren artean egingo den.
- Herri proiektua izango da, herritarrek aurrera eramandakoa.
- Prozesuaren fase nagusiak: hasiera ematea, prestatzea, elkarrekin sortzea eta abiatzea.
- Goienerren rola: formakuntza eta laguntza arlo teknikoan, juridikoan eta dinamizazioan; hau da, prozesuan zehar bidelagun izatea.

4. Dinamika eta eztabaida [18:45-19:00]

Parte hartzaileak taldetan banatu dira.

Amaieran, talde bakoitzak hitz egindako puntu nagusiak aipatu ditu:

1) **Gizartearen/komunitatearen** ikuspegitik, zer **behar** ditugu?

- Kontsumoa gutxitu
- Lan talde eraginkorra eduki energia landuko duena
- Jasangarritasuna
- Kultura energetikoa sustatzea
- Hausnarketa: baliabideak identifikatu, baliabide eta Energia Berriztagarrien mugak...
- Gizarte indibidualista eta kontsumista → kolektibotasuna
- Pandemiaren efektuz, ostera indibidualizazioantz goaz
- Alternatibak ezagutzea → gero aukeratu ahal izateko
- Praktikotasuna, antolamendu eraginkorra
- Baliabide pertsonalak: herritarrak, udala eta ADITUEn beharra

2) **Energiaren** ikuspegitik, zer **behar** ditugu?

- Informazioa, eta proiektu zehatza
- Erreferentziako gunea → fisikoa edo webgunea
- Autoa partekatze gunea → Usurbilgo bla bla car
- Energiaren prezioa → pobrezia energia / termikoa



- Kontsumoa jaitzi → ezin da dena EERR asetu
- Praktikotasuna
- Garraio jasangarriagoa → energia eskaria gutxitzeko lehentasuna (kontsumo gehien dugun arloetako bat baita)
- Autosorkuntza, ekoizpena eta beharrak asetzeagertutik gertura
- Sorkuntza termikoa zentralizatu, biomasa antolatua → filtroak, kutsadura... Hausnarketa
- Berriztagarriak bai, baina jasangarritasuna mantenduz. Denak ez du balio.
- Kontsumoaren ezagutza
- Ordaintzen dugunaren ulertzea
- Murriztea
- Informazioa
- Kontzientziaketa
- Enpresa handienenganako dependentziari aurre egin


3) **Gizartearen/komunitatearen ikuspegitik, zer baliabide ditugu?**

- Herriko elkarte esanguratsuak → Alkartasuna koop eta Lanbide Heziketa
- Ezkortasuna → individualismoari aurre egiteko beharra
- Alternatiba kolektiboak garatzeko gogoia
- Sinesteko eta batera ekiteko gogoia

4) **Energiaren ikuspegitik, zer baliabide ditugu?**

- Erribera: KM0 → elikadura → energiarekin lotua
- Atez Atekoa → hondakinen kudeaketa antolatua eta kontsumoaren kontrolerako tresna
- Trena, bidegorriak
- Ura eta ibaia (presak), basoa (biomasa), eguzkia (teilatua), haizea

5. Bide-orria [19:00-19:15]



Proposamen hau azaldu da, hurrengo saiorako beharrak identifikatzen hasteko.

6. Ondorioak [19:15-19.30] –

Plaka ezartzeko informazio bila etorri direnek, ez dute itxaron beharrik. Norbanakoek euren etxeetan gauzatu ditzakete instalazioak, baina Komunitateak aurrerago garatu ditzaken proiektuekiko bateragarriak izan daitezke printzipioz.

- Proiektu errealak ezagutzeko beharra dago
- Oresako/ Hernaniko norbait gonbidatu bere esperientzia ezagutu nahi dira → Fermin Ingutek
- Faktura tailerra? EBKak antolatutako eta herri osoari zabalduko den ekintza bat bezala planteatu liteke
- Lan taldeak hobeto definitu eta gauzak egiten hasteko gogoia dago.

ERABAKIAK ETA HURRENGO PAUSUAK

Hurrengo bilera → Maiatzak 31, 18:00, Udarregiko aretoan / pottoenean (?)

- Lan taldeak definitzen hasteko gogoia adierazi da, gauzak egiten hasteko:
 - Komunikazioa
 - Juridikoa
 - Teknikoa (proiektuak)

Bitartean:

- Nor falta den edo hartu lezakeen parte pentsatu, eta bileretara gonbidatu.
- Maiztasun, ordutegi eta leku egokiak pentsatu.

Amaiera [19.45]



1. - GIZARTEAREN FOED INDIVIDUAL ETA KONSUMISTA

2. - ALTERNATIBAK LANTZEA. ~~konsumista~~

3. - KONSUMO-MAIA JAITSI BETAZ DA

4. - PRAKTIKOTASUNA BILATZEA

- 1° BEHARRA: → ENERGIA KONSUMOA GUTXITU.

→ LAN TALDE BAT IRAGUNKORRA ETA IRAUNKORRA ENERGIARIAN LANTZIKO

- 2° - - GENERACION TERMICA CENTRALIZADA - ERREGAI BAZUNA -
- AUTOKUNTZA BULTZATU.
- GARRAZIA TALANUARRIA GUA
- DEMANDA ENERGETIKOA GUTXITU.

- 3° - BAGOBIDE NATURALAK - URA - BARRA - EGURKIA - HAITZA -

- ATEZ ATE
- 3° - TRENA -
- ERREKA
- AKARTASUNA. 1
- BIDE GORRIAK
- ERRI BERA - BERTAKOA - KM 0
- CANBIDE HEZIKETA - ZURJETA -
- ATEZ ATE.

* Errolaioakko dependentzia gutxitu: KULTURA ENERGETIKOA

* Kukera ezberdinen kausakaketa (Produktibitatea)

* Produktzio / kontsumo = x (ERLANTZOA)

* Energiaren prezioa €

* Energia pobretia

* Baliabide fisikoak: Argia, bera, ur-eremaria, bi eremu nabulak, lanturak, biomasa (CH₂)

* Baliabide berri-energiaren mugak

* Energia nuklearra? Et du berotegi efektu gogor isurtzen. Hordakia nuklearrak.

$$CH_4 + O_2 \rightarrow H_2O + CO_2$$

(H₂ okerriyoga CO₂-a baina (biak berotegi efektu gogor)



GIZARTE IKUSTEGITIK BEHARRAK

1. JASMOGARRITASUNAREN BEHARRA
2. INFORMAZIOA, PROIEKTU ZEHATZAK
3. EREFERENTZIAZKO GUNEA
 - ← LEKU FISIKOA
 - ← WEB GUNEA
 - ← ...
4. KOSTEA KONPLETITZEKO GUNEA (USURBILSO BIAZGARR)

ENERGIAREN & INGURUAREN BEHARRAK

1. KONTSUMOAREN ERAGUTZA
2. ORDAINTEZEN DUGUNA LILERTzea
3. MURRIZTEA KONTSUMOA
4. INFORMAZIOA & KONZIENTZIALIZAIOA
5. ENPRESA HANDIENGANAKO HENPEKOTASUNA MURRIZTU

BALIABIDEAK

1. HERRITARRAK
2. UDALA
3. ADITUAK
- 4.

BALIABIDEAK

1. ERREKIBERENETAKO TEILATUAK
2. EGURKI - ENERSIA
3. IBAIA
4. PRESA ??
5. HAZI (HAZIE - ERROTIN)
6. BIOMASA